

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



UDAPARKEAN 2019 EGITARAUA

GAUR, abuztuak 1

18:30, Ibildaldia, Ttipi- ttpa. Atsegindegitik Ave Maria parkera. Denontzat

19:30, El Feditoren *Oyun* ikuskizuna. Denontzat zuzenduta eta euria eginez Atsegindegin burutuko da.

20:30, *Económicas* antzerkia, La Burla Teoatroren eskutik. Denontzat zuzenduta eta euria egiten badu Atsegindegin izango da.

22:00, *Horman erlojua duen* etxea pelikula ikusteko aukera. 105 minutuko iraupena iznago du, eta familia giroan ikustekoa da. Euria eginez Atsegindegin jarriko da filma.

BIHAR, abuztuak 2

18:00, Plisti Plasta jolasa 0-3 bitarteko haurrentzat. Els Amics d'en Cursó jolasa 5 urteik gorakoentzat. Euria eginez Atsegindegin egingo dira jolasak.

20:00, Haatikien eskutik, 4 eme dantza. Denontza zuzendutako emanaldia izango da eta euria eginez Atsegindegin burutuko dena.

20:30, *Meeting Point* emanaldia egongo da Ertza taldearen eskutik. Denontzat zuzenduta eta euria egiten badu Atsegindegin izango da.

22:00, *Korrontzi dantzan* ikuskizuna. Denontzat zuzendutako emanaldia eta euria eginez Atsegindegin egingo da.

ETZI, abuztuak 3

19:00, *Esencial* ikuskizuna, Vaiven Circoren eskutik. Denontzat zuzendutakoa eta euria egiten badu Atsegindegin ospatuko da.

20:30, *2Kzioren eskutik kontzertua egongo da* Gazteentzat zuzenduta eta euria egiten badu Atsegindegin izango da.

Amaitu ostean, afora egongo da Ave Maria parkean., musikaz gozatzeko aukerarekin batera. Bi aukera egongo dira, bata etxetik afora ekartzea eta bestea han bertan erostea. Horretarako, Furgofarra eta Le Petit Truck Creperia edonoren zerbitzura egongo dira.

HERNANI UDAPARKEAN EKIMENA

Udaparkean, Ave Mariaz gozatzeko aukera

Uztailaren 25, 26 eta 27an hasi zen Udaparkean 'Gure Zirkua' emanaldiarekin, egunean bi saio eginez eta gaurtik larunbatera bitarte hamaika ekintza eskainiko dituzte, asteburua girotuz.

AURREKO ostegunean eman zitzaion hasiera Udaparkean ekimenari, *Gure Zirkua* emanaldiarekin; 2017an Iker Galarzak eta Joseba Usabiagak martxan jarri zuten proiektua da, akrobaziak, magia, malabareak eta pailazoak uzartzen dituen.

Horrek eman zion hasiera egitasmoari, eta lau eguneko atsedendia egin ostean, Udaparkeanek beste hamaika ekintza partekatuko ditu herriarrek.

Gaur arratsaldean, aurrenekoak

Gaur arratsaldean izango dira aurrenak; hasteko 18:30etan, *Ttipi- ttpa ibildaldia* izango da, Atsegindegitik Ave Maria parkera. Gonbidapena zabala da, eta edonork egin dezake pa-seotxo.

Bertara iritsi ostean, ikuskizun batez gozatzeko aukera egongo da, eguneko lehenengo: *Oyun*. Federico Minini, jatorriz argentinarra, arkitektura eta artea ikasia da, eta urte luzez zirko munduan ibilitakoa. Ikuskizun honetan, eguneroko tresnak lagun izango ditu (eltzeak, sokak...).

Jarraian, *Económicas* antzerkiarekin gozatu ahal izango da. Antzerki dosi txikiak dira, espazio naturalean, Sandra Ferrús eta Vito Rogado antzezleek taularatuko dituztenak. Gaua girotzeko eta eguna amaitzeko, zinea jarriko dute. *Horman erlojua duen* etxea pelikula ikusi ahal izango da, familia giroan.

Txikientzat ere, ekintzak

Biharko eguna, etxeko txikiek hasiko dute, arratsaldeko



Vaiven Circoren 'Esencial' ikuskizunarekin gozatzeko dute hernaniarrek larunbatean. Argazkia: Vaiven Circo.

Arratsaldeko 18:30etan hasiko da Ttpa ttpa ibilaldiarekin, Atsegindegitik Ave Maria parkera.

18:00etan, aldi berean, bi ekintza egongo baitira.

Lehenengoa, *plisti plasta* jolasak, gehienez 3 urte dituztenentzat; eta bigarrena, *Els Amics d'en Crusó* jolasak, 5 urte baino gehiago dituztenentzat. Azken honetan, egurrez egindako tamaina haundiko tramankuluen bidez jolas libre egingo dute.

Ondoren, iluntzeko 20:00etan dantza emanaldi bat egongo da, Haatik taldearen eskutik, 4 eme ikuskizuna es-

kainiko dute. Lau emakume izango dira protagonistak, haien eskubideen alde borrokan dihardutenak.

Ez da, ordea, dantza-emanaldi bakarria izango. Orduerdiko emanaldi honen ostean, beste dantza bati emango zaio hasiera: *Meeting point*, Ertza taleak sortua. Asier Zabaleta dantzariaren eta koreografoaren zuzendaritzapeko lan honek, kaleko ikuskizun onenaren Max saria jaso du. Eta biharko gauari amaiera emateko, *Korrontzi dantzan* ikuskizuna eskainiko dute. Talde honek, antzinako hots tradizionalei beste ikuspuntu moderno eta garai-kideago bat ematen die.

Azken eguna, musikaz blai
Azken egunari hasiera arra-

tsaldeko 19:00etan emango zaio, *Esencial* ikuskizunarekin, Vaiven Circo taldearen eskutik. Segidan, 20:30ak aldera, musikaz gozatzeko aukera egongo da, ZZIO taldeak kontzertu batekin girotuko baitu Ave Maria parkea.

Eguna amaitzeko, afora ospatuko da musikaz girotuta, Bitartean taldearen eskutik. Bi aukera: janaria etxetik ekarri daiteke, edo bertan erosi. Horretarako, FurgoFarra furgoneta jarriko da parkean, sandwichak, hamburgesak, patatak... eskainiz. Eta bigarren aukera ere egongo da, gozoagoa, Le Petit Truck Creperia, hain zuzen.

Astebururako planik izan ezean, Ave Marian bakarrik, bikotearekin, lagunekin edo familian gozatu daiteke. ||

ISABEL
Janari denda
COVIRAN
Tomas Alba 11,
Astigarraga
943 55 23 67

ITXASPE
Arrandegia
Antziola 5
Tel.: 943 330 365
Mobila: 665 735 224
20120 Hernani

Tripontzi jatetxea
PINTXOAK
RAZIOAK
ENTSALADAK
PLATER KOMBINATUAK
ARRAI FRESKOAK
ANDRE KALEA, 11 - HERNANI
943 555 724

FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA
Asegururik ba al duzu?
Deitu Orbegozora
24 orduko tfnoa.
943 33 10 20
www.funerariaorbegozo.com
HERNANI ANDOAIN ASTIGARRAGA URNIETA GOIZUETA
Zentrala Latsunbe 7, Hernani

GAUR Giro nahasiagoa eta ezengonkorragoa espero da. Zerua lainotuta egongo da eta euria egingo du; zaparradak botako ditu nonahi eta ekaitzak ere jo dezake. **Min.16° / Max.22°**

BIHAR Lasaitzera egingo du eguraldiak; eguzkitsu egongo da eta tenperaturak gora egingo du. Goiza lainotuta hasiko da eta arratsaldean, aldiz, eguzkia nagusituko da. **Min.15° / Max.24°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** **Gauetz:** **Aldabe** Perkaitezgi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



HERNANI SAN INAZIO EGUNA



Herri kirol saloan aizkoran eta trontzan aritu ziren neska-mutilak.

'Gure patroia haundia', hernaniarren konpainian

San Inazio da Gipuzkoako patroia, eta egun hori ospatu ohi dute, urtero, Santa Barbaran. Hala egin zuten atzo ere; beste urte batez, hernaniar askok. Herri kirol, bertsolari, musikari eta baita janariarekin ere egunaz gozatzeko aukera izan zuten bertaratutakoek. Bi taldetan aritu ziren, hiru modalitateetan; aizkoran, trontzan eta txingetan. ||



Andoni Mujika eta Eñaut Martikorena aritu ziren bertsoetan.

HERNANI NAGORE LEGARRETA

Argazkilaritzan trebatzeko aukera Gran Kanarian, Legarretarekin

Argazki-bidaia antolatu du Nagore Legarreta argazkilaria hernaniarrak abendurako. Proiektu berri baten berri ere eman du.

BESTE esperientzia bat bizitzeko aukera eskaini nahi die Nagore Legarreta argazkilaria hernaniarrak argazkigintza gustuko dutenei.

Beste hainbatetan egin duen moduan, argazki-bidaia egingo du abenduan, oraingo honetan, Gran Kanariara. Abenduaren 3tik 8ra egingo du, eta harekin joan nahi duenak astelehenera arte dauka aukera izena emateko.

Horretarako, baita informazio gehiagorako ere, Legarretarekin berarekin jarri behar da harremanetan: nagore.legarreta@gmail.com.

Ricardo Montesdeoca kanariarrarekin batera

Ricardo Montesdeoca argazkilaria kanariarra ere, bertan izango da, Legarretarekin batera. Legarretak berak azaldu duenez, «argazkilaritzarekin esperimintatzeko aukera izango da egun hauetan, bai digitala edo analogikoa. Izan ere laborategi bat eta beharrezko materiala izango da erabiltzaileen eskura...».

Baina ez hori bakarrik, «irlako paisai, eguraldi, jaki eta bertako kultura eta historia ezagutzeko aukera izango da», azaldu du.

Legarretaren proiektua, aukeratua

Bitartean, lanean jarraitzen du Legarretak haren proiektuetan. Duela egun batzuk jakinarazi du Alkizako Sormen Kabia deialdirako berak aurkeztutako proiektua aukeratu dutelako. «Pozik» agertu da, eta aurreratu du «natura eta bertako biztanleak lotzen dituen proiektu parte-hartzailea» izango dela, «biztanleek haien inguru-naturarekin dituzten lotura emozionalak azaleratzen lagunduko duena, esperimintazioa, sormena eta ekintza ardatz hartuta». ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† **M^a DOLORES AMONARRAIZ ETXEBERRIA**
ANDREA
(Juan Apaolazaren alarguna)
Atzo hil zen, 93 urte zituela
- Goian Bego -
Seme-alabak: Xabier eta Maite Aramendi, Ramon eta Maria Luisa Aranburu; bilobak: Maite eta Jokin, Ainhoa eta Aritz, Jon, Miren eta Ivan; birlobak: Aiur, Unax eta Haize; ahizpak: Cristina eta Kontxi; ezkon anai-arrebak: Agustin Lasarte, Consuelo Gomez eta Josefina Yeregui; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak eta bere zaintzailea Zulema.
Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela **BIHAR, OSTIRALA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEA** parrokian elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.
Hernanin, 2019ko abuztuaren 1ean
OHARRA: Gorputza **ORBEGOZO EHORZKETA TANATORIOAN** egingo da eguerdiko 12:00ak arte.

☀ **M^a DOLORES AMONARRAIZ ETXEBERRIA**
- Goian Bego -
Erraza izan zen zu maitatzea, ezinezkoa ordea, zu ahaztea
ZURE BILOBAK: Maite eta Jokin, Ainhoa eta Aritz, Jon, Miren eta Ivan;
BIRLOBAK: Aiur, Unax eta Haize
Hernanin, 2019ko abuztuaren 1ean

IRAGARKI MERKEAK

LOGIKALINE enpresak **HIRU TELEOPERADORA LANPOSTU** bete behar ditu. Lana Hernanin egiteko da. Kontratua: 6 hilabete, hasteko. Gaztelera eta frantsesa eskatzen dira. Lanaldi osoa. Bidali c.v. rrhh@logikaline.com edo deitu **943 31 86 06**

Emakume bat behar dugu jatetxe bateko sukaldetan laguntzeko eta arraskako lanetarako. Kotxea beharrezkoa da. Deitu: **943 33 13 87**

Iniigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura, ... Deitu: **943 33 28 94 - 626 80 76 33** (Agustindarren plaza, 4)

ERREMONTA GALARRETAN **HERNANIARREREN DESKONTU BEREZIAK** **8€** **LAGARRA**
ERREMONTA BIZIRIK
ORIAMENDI 2010 **galarreta**